

# OLENTZERO BIARRITZ

ABENDUA  
**19**  
DÉCEMBRE

17:00

**BARATZE PUBLIKOAN / JARDIN PUBLIC**

**KANTU & DANTZAK**  
HAURRENTZAKO TAILERRAK  
ARNO ETA XOKOLATE BEROA

**CHANTS & DANSES**  
ATELIERS POUR LES ENFANTS  
VIN ET CHOCOLAT CHAUD

18:00

**DESFILE ANIMATUA / DÉFILÉ ANIMÉ**

**OIENTZEROAREN HEITZA**  
ZIGANTE, KOTILUN, MUSIKA...

**ARRIVÉE D'OLENTZERO**  
GÉANTS, MUSIQUE...

19:00

**HERRIKO KASINOAN / ESPLANADE DU CASINO MUNICIPAL**

**DANTZA IKUSGARRIA**

**SPECTACLE DE DANSE**

## 1- HORRA MARI DOMINGI

Horra Mari Domingi begira horri  
Gurekin nahi duela Belena etorri  
Gurekin nahi badezu Belena etorri  
Atera beharko dezu gona zahar hori.

**Hatoz, hatoz, zure bila nenbilen ni**  
**Hatoz, hatoz, zure bila nenbilen ni**  
**Hatoz, goazen, adora dezagun**  
**Belenen jaio den haur eder hori.**

Irrintzi eta poza algararekin  
Hori behar dinagu guk alkarrekin  
Pozez adora zagun Jesus haur honi  
Berak eman dezagun gaur zorioni.

## 3- OLENTZERO JOAN ZAIGU

Olentzero joan zaigu mendira lanera,  
Intentzioarekin ikatz egitera.  
Aditu duenean Jesus jaio dela,  
Lasterka etorri da berri ematera.

**Horra, horra,**  
**Gure Olentzero,**  
**Pipa hortzeten duela**  
**Eserita dago.**  
**Kapoiak ere baitu**  
**Arraultzatxoekin**  
**Bihar gox'askaltzeko**  
**Botoil ardoekin (berriz).**

Olentzero gurea ezin dugu ase,  
Osorik jan dizkigu hamar txerri gazte.  
Saiheski ta solomo, horrenbeste heste,  
Jesus jaio delako erruki zaitezte.

Olentzerok dakarzki atsegina poza,  
Jakin baitu mendian Jesusen jaiotza.  
Egun argi honetan alaitu bihotza,  
Kanpo eta barruan kendu azkar hotza.

## 2- HATOR MUTIL ETXERA

Hator, hator mutil etxera  
Gaztaina ximelak jatera  
Gabon gaba ospatutzeko  
Aitaren t'amaren onduan.

**Ikusiko duk aita barrezka**  
**Ama ere poz atseginez.**  
**Eragiok mutil**  
**Aurreko danbolin horri,**  
**Gaztainak erre artian,**  
**Gaztainak erre artian,**  
**Txipli, txapla, pum.**  
**Gabon gaba pozik igaro daigun.**

Epel, epel gaur sukaldean  
Aitaren t'amaren onduan,  
Jesus haurra jaio dalako  
Alkarren maitasun sutsuan.  
Gaurko gau honen argi biziak  
Pozten gaitu bihotzean.

## 4- DIN DAN DON

**Din dan don, din dan don, Eguberri on!**  
**Zorion, zorion, Gabonak din, dan, don !**  
**Din dan don, din dan don, Eguberri on !**  
**Zorion, zorion, Gabonak, gabon.**

Izar bar hasi da dizdizka zeruan,  
Berri onak zabaltzen ari zaigu munduan;  
Jaio da, jaio da, Jaunaren Semea  
Askatxo batean dago, lastoen gainean.

Antton eta Peru, artzain buru xuri  
Izarrari jarraika biak datozen arinka.  
Menditik barrena, haurtxoarengana  
Artzain bakotxak darama arkumetxo bana

## 6- ELURRA TEILATUAN

Elurra teilatuan, zakua lepoan  
Iibili beharko degu  
Aurtengo neguan, Riau (berriz)  
Riau, riau, riau raka taplau !  
**Hau duk umorea**  
**Utzi alde batera Euskaldun jendea !**

## 5- OLENTZERO BURU HANDIA

Olentzero buru handia  
Entendimenduz jantzia,  
Bart arratsean edan omen du  
Hamar arroako zahagia.

Ai urde tripa haundia  
Sagar ustelez, sagar ustelez,  
Ai, urde tripa handia  
Sagar ustelez betia.

Olentzero begi gorri  
Nun arrapatu (duk) arrain hori?  
Ziburu ondoko harkaitzetan  
Gauerdiko hamabietan.

## 7- OH OH OLENTZERO

Olentzero jin zauku menditik herrira  
Zahar gazte guzien alegeratzera.  
Utziz mendiak elur euri ta haizeak  
Aise nahiago ditu supazter pindarrak

**Olentzero, oh, oh, Olentzero!**  
**Olentzero, oh, oh, Olentzero! (2)**

Biarritzeko herria baitzaio ederra,  
Gaur hemen afaltzeko gelditzen omen da.  
Esne broskatua du horrek bere friko  
Eta gaztai erreak ditu maite asko.

Olentzero irri bat beti haurrendako  
Bereizar haunditik baitu aterako !  
Eta bere zarpatik du berdin botak  
Prestu diren haurrentzat oñon goxo asko.

## 8- KAS KAS KAS ATARIAN

Kas kas atarian, (bis) nor dabil etxe? (bis)  
Ikusi makusi, (bis) nor naizen ikasi (bis)  
Bota handiak, (bis) prakak zabalak (bis)

**Ai ene, ez dakit ezer ez, ez, ez**  
**Ai ene, kontatu mesedez (bis)**

Kas kas atarian, (bis) nor dabil etxe? (bis)  
Ikusi makusi, (bis) nor naizen ikasi (bis)  
Gerriko beltza, (bis) kaiku gorria (bis)  
**(Leloa)**

Kas kas atarian, (bis); nor dabil etxe? (bis)  
Ikusi makusi, (bis), nor naizen ikasi (bis)  
Muttur zikina, (bis), txapel urdiña (bis)  
**(Leloa)**

Kas kas atarian, (bis), nor dabil etxe? (bis)  
Ikusi makusi, (bis) nor naizen ikasi (bis)  
Pipa hortzeta, (bis) ardoa bertan (bis)

**Bai, bai, bai lehen, orain eta gero,**  
**Zu zara gure Olentzero (Bis)**

# HORRA, HORRA, GURE OLENTZERO!

## Un message plus que jamais d'actualité

Souvent présenté à tort comme le « Père Noël basque », Olentzero est un personnage mystérieux porteur d'un message chargé d'optimisme. Cette année encore, le mythique charbonnier descendra de la montagne avec Mari Domingi, afin de célébrer le retour de la lumière. A Biarritz, pour petits et grands, ce sera l'occasion de nous retrouver autour de la langue et de la culture basque.

## Un évènement populaire

Chants des élèves des écoles bilingues de la ville, spectacle de danse, ateliers pour les enfants, txaranga, défilé animé, géants, kotilun gorri, vin et chocolat chauds... les associations biarrotes réservent un accueil mérité à Olentzero et à Mari Domingi. Venez en famille et habillés pour l'occasion, perpétuer une tradition toujours vivante et actuelle !

## Euskaraz eta euskal kulturaz

Urtero bezala, menditik jautsiko zaigu gure mitoen parte den Olentzero. Gure ikazkina ez da arras Bizar zuri bezalakoa, baikortasunez beteriko mezu bat ekartzen baitigu herritarroi. Mari Domingirekin batera, argiaren itzuleraren berri emanen digu. Euskal Herri osoan bezala, Miarrizen etorrera hori elgarrekin ospatuko dugu aurten ere txiki eta handiok, euskaraz eta euskal kulturaz.

## Ohitura herrikoia

Belaunaldien arteko kantuak, dantza ikusgarria, haurrentzako tайлerrak, musika, desfilea, ziganteak eta kotilun gorriak, arno eta txokolate beroak... Miarrizko elkarteeek behar bezala antolatu dute Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Parte har dezagun familiar, baserritar jantziekin eta argiak eskuan!



Info+: Arroka 06.75.92.95.67